

Abarrak

JON TORNER

Zorte izugarria

Maus. Art Spiegelman.
Reservoir Books, 2009.
296 orrialde, zuri-beltzean.



AUSCHWITZ. Poloniako kontzentrazio –eta anikilazio– esparru horretan milioi bat lagun baino gehiago hil zituzten naziek II. Mundu Gerran, Europa osoko juduak gehienak. Poloniar juduak ziren Art Spiegelman komikigilearen (Stockholm, Suedia, 1948) gurasoak. Eta Auschwitzen eduki zituzten.

Bizirik atera ziren, ordea. Bizirik Auschwitzetik, bizirik Gerraren izugarrikeria guztietatik. Nola? *Maus* nobela grafikoaren aurreneko partea irakurtzen ari nintzela “zortea” hitzak mila bider kolpatu ninduen, eta, hara non, amaierako partera heldu aurretik “ZORTEA” irakurri dut liburuan, horrela, letra larritz. “adorea” eta “baliabide handiak” ere ageri dira, baina txikian. Sagu itxurako Art Spiegelmanen ahotik ateratzen dira hitzok. *Maus*-en bere aitaren –Vladek– historia bildu du. Hura da protagonista nagusia. Grabagailua eskuan, gurasoen –eta beraren– bizitza hunkigarria osatzen doa Art, gerra garaiko eta orainaldiko pasarteak abileziaz uztartuz.

Juduak sagu bihurtu ditu, naziak katu, poloniar ez juduak zerri, estatubatuarrak zakur... Propio marraztu ditu horrela, juduentzat Polonia okupatua sagu-zulo nola bihurtu zen irudikatzeko. *Maus* obra gogor eta hunkigarria da. *Raw* aldizkariaren argitaratu zen aurrenekoaz, zatika, 1980 eta 1991 artean. Urtebete geroago Pulitzer saria jaso zuen Spiegelmanek. Ez da gutxiagorako, II. Mundu Gerran juduek pairatu zuten jazarpen basatiaren testigantza argia da. Erritmo borobilez lotzen ditu lehenaldiko gertaerak eta orainaldiko bizipen eta sentimenduak, narrazioa arintzen duten baliabide grafiko ikusezinekin.

Obra gomendagarria da erabat. Horregatik zorte izugarriarena, txiripaz heldu baitiot azkenaldian gehien asebate nauen komiki edo eleberrri grafikoari. ■



AMAGOIA *i* ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea

1. solairua

DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxe.com

Tel. 943 336170 • 677 202122

